

Egoera ekonomikoa eta Merkatuak ASTEKO LABURPENA

2020ko urtarrilaren 13tik 17rako astea


➤ **INGURU MAKROA:**

- ❖ ASTEKO DATUEN PODIUMA
- ❖ KASU DATORREN ASTEAN GAI HAUEI...

➤ **ASTE HONETAN MERKATUETAN**

ASTEKO DATUEN PODIUMA

EUROPA: KPI



Datuaren analisisia

Euroguneko kontsumorako prezioen indizea % 1,3an kokatu zen abenduan, aurreko hilabetean lortutako % 1aren gainetik, baina iazko epe bereko erreferentziaren azpitik (% 1,5). Euroguneko urteko inflazio-tasari eginiko ekarpenik handiena zerbitzuen sektoretik etorri zen, 0,8 portzentaje-puntuako igoerarekin, baita elikagai, alkohol eta tabakotik (+0,38 puntu), ondasun industrial ez energetikoetatik (+0,12 puntu) eta energetik (+0,02 puntu) ere.

Adierazlearen azalpena

KPIa hileroko prestatzen du Eurostat/Europako Banku Zentralak. Europako etxeek kontsumitzen dituzten oinarriko zerbitzu eta ondasunen multzoaren prezioen mailaren bilakaera erakusten du, "erosketa-saskia" izenarekin ezagutzen dena. Ez du produktuen prezioa adierazten, baizik eta batez beste haien balioa zenbat handitu edo txikitu den, ehunekotan adierazita. Balioaren aldaketak herrialdearen inflazioa zehaztuko du.

ASTEKO DATUEN PODIUMA

ERRESUMA BATUA: KPI



Datuaren analisia


Inflazio britainiarra duela hiru urte baino gehiagoko minimoetara jaitsi zen ustekabeen, urte arteko tasa % 1,3koa izan baitzen abenduan, azaroko % 1,5eko hazkundearen aldean. Kontsumorako prezioen indizeak (KPI) 2016ko azarotik izan duen igoerarik txikiena izan zuen. Inflazioak behera egin zuen abenduan, hoteletako egonaldien prezioek behera egin zutelako. Emakumezkoen arroparen prezioak ere jaitsi egin ziren, deskontua duten artikulu gehiagorekin.

Adierazlearen azalpena

KPIa hileroko prestatzen da. Etxeek kontsumitzen dituzten oinarritzko zerbitzu eta ondasun multzoaren prezioen mailaren bilakaera erakusten du, "erosketa-saskia" izenarekin ezagutzen dena. Ez du produktuen prezioa adierazten, baizik eta batez beste haien balioa zenbat handitu edo txikitu den, ehunekotan adierazita. Balioaren aldaketak herrialdearen inflazioa zehaztuko du.

ASTEKO DATUEN PODIUMA

AEB: KPI



Datuaren analisisia

Kontsumorako prezioen indizeak % 0,2 egin zuen gora abenduan, azaroan % 0,3 igo ondoren. Urte arteko kopuruetara ekarrita, indizeak % 2,2 egin zuen gora, azaroko % 2,1eko igoeraren aldean. Analistek, ordea, abenduan KPIa % 0,3 igoko zela aurreikusi zuten, eta urte arteko konparazioan % 2,3 egingo zuela aurrera. Energiaren eta elikagaien osagai hegazkorrak kanpoan utzita, KPIa % 0,1 igo zen, azaroko % 0,2aren aldean. Abendura arteko 12 hilabeteetan, azpiko KPIa % 2,3 igo zen, hazkunderik handiena 2018ko urritik.

Adierazlearen azalpena

KPIa hileroko prestatzen du Lan sailak. Amerikako etxeek kontsumitzen dituzten oinarrizko zerbitzu eta ondasun multzoaren prezioen mailaren bilakaera erakusten du, "erosketa-saskia" izenarekin ezagutzen dena. Ez du produktuen prezioa adierazten, baizik eta batez beste haien balioa zenbat handitu edo txikitu den, ehunekotan adierazita. Balioaren aldaketak herrialdearen inflazioa zehaztuko du.

ASTEKO DATUEN PODIUMA

AEB: KONTSUMITZAILEAREN KONFIANTZA MICHIGANEKO



Datuaren analisia

Michiganeko Unibertsitateko kontsumitzailearen konfiantza 99,1ekoa izan zen urtarrilean, aurreko hileko eta esperotako 99,3aren aldean. Oro har, azertu diren osagai guztiak nahiko egonkor mantendu dira. Gaur egungo baldintzen azpi-indizea 115,5etik 115,8ra igaro da, eta aukerena, berriz, aurreko hileko 88,9tik 88,3raino jaitsi da.

Adierazlearen azalpena

Kontsumitzailearen sentimenduaren indizea (ICC) kontsumitzailearen konfiantza neurtzen duen adierazle ekonomikoa da, eta, beraz, kontsumitzaileen gastua aurreratzen duen adierazlea da. Michiganeko Unibertsitateak argitaratzen du hilero. Amerikako 500 etxetan ekonomiaren egoera orokorraren eta gaur egungo zein etorkizuneko finantza-egoera pertsonalaren inguruan egindako inkestan jasotako datuak ditu oinarri. Kontsumitzailearen konfiantza altuak hedapen ekonomikoa sustatuko du, baina, baxua bada, hazkunde ekonomikoaren uzkurdua eragingo du.

ASTEKO DATUEN PODIUMA

TXINA: BPGd



Datuaren analisisia

Barne-produktu gordina % 6,1 hazi zen 2019an, eta, beraz, 0,5 portzentaje-puntu moteldu zen 2018koaren aldean. Horrek agerian uzten du Txinako ekonomiak moteltzera egin duela, hazkundeak 1990etik ikusten ez zen minimo berri bat jo baitzuen. Hala ere, Txinan zein atzerrian arriskuak eta erronkak handituz badoaz ere, ekonomia txinatarrak erritmo egonkorrean hazi zen oro har, gobernuak zehaztutako % 6 eta % 6,5 bitarteko tartearren barruan. Urteko lehenengo hiru hiruhilekoetan indarra galdu ondoren, hazkundea % 6,0an egonkortu zen 2019ko azken hiru hilabeteetan, hirugarren hiruhilekoan izandako erritmo bera.

Adierazlearen azalpena

Estatistiken Bulego Nazionalak argitaratzen du barne produktu gordina (BPGd). Herrialde baten ekoizpena eta hazkunde ekonomikoa neurtzeko erabiltzen den adierazle ekonomiko bat da. Txinak ekoizten dituen azken zerbitzu edo ondasunen batuketak eginez lortzen da, eta denbora-tarte jakin batean erregistratzen da. Zerbitzu edo ondasun horiek lurralde nazionalen ekoiztakoak izan behar dute, hala enpresa nazionalen nola atzerrikoen eskutik.

KASU DATORREN ASTEAN GAI HAUEI...

Data	Eremua	Adierazlea	Aurreik.
01/20	Japonia	Urte arteko industria-ekoizpena	--
01/21	Espainia	Balantza komertziala	--
01/21	Erresuma Batua	Erregistratutako langabezia	--
01/21	Alemania	ZEW oraingo egoerari buruzko inkesta	-13.5
01/21	Alemania	ZEW inkestaren aukerak	14.0
01/21	Eurogunea	ZEW inkestaren aukerak	--
01/22	Frantzia	Enpresen konfiantza	105
01/22	Estatu Batuak	Hileko etxebizitzaren salmenta	% 1.5
01/22	Estatu Batuak	Bigarren eskuko etxebizitzaren salmenta	5.43m
01/23	Japonia	Balantza komertziala	-¥170.0b
01/23	Japonia	Urte arteko esportazioak	-% 4.2
01/23	Japonia	Urte arteko inportazioak	-% 2.6
01/23	Estatu Batuak	Hasierako langabezia-eskaerak	--
01/23	Eurogunea	Kontsumitzaileen konfiantza	-7.8
01/23	Estatu Batuak	Fed-en fab. jarduera Kansas Cityn	--
01/24	Japonia	Urte arteko KPIa	% 0.7
01/24	Japonia	Japoniako Jibun Bank Composite PMIa	--
01/24	Frantzia	Markit PMI Composite Frantzia	52.0
01/24	Alemania	Markit/BME Alemania Composite PMI	50.5
01/24	Eurogunea	Markit PMI Composite Eurogunea	51.1
01/24	Erresuma Batua	Markit/CIPS RU Composite PMI	50.5
01/24	Estatu Batuak	Markit PMI Composite AEB	--

BURTSA:

Igoera orokorrak munduko burtsa nagusietan; akordio komertzialaren lehen fasea ezustekorik gabe sinatu ondoren, AEBen eta Txinaren arteko liskarrek baretzera egin baitzuten. Hitzarmen horretan, Ipar Amerikarekin duen defizita murrizteko helburuarekin 200.000 milioi dolarreko erosketak egiteko konpromisoaz gain, teknologia eta jabetza intelektuala babesteko konpromisoa hartu zuen Txinak, bai eta truke-tasaren finkapenean eta konpromiso horiek betetzen direla zaintzeko mekanismoetan esku ez hartzeko ere. Hala ere, AEBetako Altxorrek gogora ekarri zuen sinatutako akordioak ez diela eragingo Txinan oraindik indarrean diren muga-zergei, akordio komertzialaren bigarren fasea sinatu arte behintzat aktibo jarraituko baitute. Halaber, bigarren faserako elkarrizketak martxan zeudela ere baieztatu zen, eta Trumpek baztertu egin zuen hirugarren fase bat izateko aukera. Estatu Batuetako Altxorrek Txinari dibisen manipulatzailerik kalifikazioa kendu ziola ere ezagutu zen astean, negoziazioak bide onetik jarraitzeko lagungarri izango dena, nahiz eta Huawei-ri AEBetako teknologia duten ondasunen hornigaien blokeoa gogortzeko egiten ari den lana etorkizunerako oztopoa izan daitekeen. Trumpek, bestalde, Alemania, Frantzia eta Erresuma Batutik inportatutako autoei % 25eko muga-zergak ezartzeko mehatxua egin zuen, Iranekin daukan gatazkan bere alde jartzen ez badira. Amaitzeko, emaitza korporatiboak aurkezteko denboraldia hasi zen, balantze positiboarekin.

ERRENTA FINKOIA:

Kurba subiranoek aldaketa txikiak izan zituzten Atlantikoaren bi aldeetan: Alemaniako 10 urterako tasak 2 op egin zituen behera eta amerikarrak ez zuen mugimendurik izan. Hala ere, nabarmentzekoa da Erresuma Batuko egoera; izan ere, hamar urterako tasa oinarritzko 15 puntu jaitsi zen, Ingalaterrako Bankuak tasak jaisteko aukerak gora egin zuelako, hazkundeari eta inflazioari buruzko datu kaskar samarren ondoren. Bestetik, arrisku-primek gora egin zuten herrialde periferikoetan, Italian batez ere, ezegonkortasun politiko handiagoaren ondorioz. Kreditu-merkatuan aldaketa gutxi.

DIBISAK / LEHENGAIK:

Euroa -% 0,27 ahuldu zen dolarraren aurrean, eta 1,11 \$/€ mailan amaitu zuen astea. Aldiz, balioa irabazi zuen yenaren eta liberaren aurrean, AEBen eta Iranen arteko tentsioak baretu zirelako eta Ingalaterrako Bankuak tasak murrizteko aukera dagoelako, hurrenez hurren. Lehengaiak dagokienez, petrolioaren prezioak ia ez zuen aldaketarik izan astean. Urreak, bestetik, % 0,33 egin zuen atzera, 1.557,24 \$/ontza mailaraino.

INDIZEAK	PREZIOA	% Aldaketa Astean	Ald. % 2020
MSCI WORLD (Local)	1.851,04	1,67	2,85
IBEX 35	9.681,30	1,12	1,38
DJ EURO STOXX 50	3.808,26	0,49	1,69
DJ STOXX 50	3.477,29	1,27	2,18
FTSE	7.674,56	1,14	1,75
S&P 500	3.329,62	1,97	3,06
Dow Jones	29.348,10	1,82	2,84
NASDAQ	9.388,94	2,29	4,64
NIKKEI 225	24.041,26	0,80	1,63
MSCI GORAKORRAK (Tokioa)	63.410,88	1,41	3,16
MEXBOL	45.817,76	2,59	5,23
BOVESPA	118.478,30	2,58	2,45
SHANGHAI	3.222,53	-0,54	0,83
Errusia Rts Mosku	1.637,75	1,43	5,73

Gobernuen tasak	Maila	% Aldaketa astean	Ald 2020
ALEMANIA 2 URTE	-0,59	0,01	0,01
ESPAINIA 2 URTE	-0,35	0,04	0,04
AEB 2 URTE	1,56	-0,01	-0,01
ALEMANIA 10 URTE	-0,22	-0,02	-0,03
ESPAINIA 10 URTE	0,46	0,02	-0,01
AEB 10 URTE	1,82	0,00	-0,10
ALEMANIA 30 URTE	0,30	-0,01	-0,05
ESPAINIA 30 URTE	1,39	0,05	0,06
AEB 30 URTE	2,28	0,00	-0,11
Kreditu-spreada (op)			
MARKIT ITRX EUROPE 12/24	42,75	-0,37	-1,31
MARKIT ITRX EUR XOVER 12/24	207,17	2,08	0,80

Dibisak	Maila	% Aldaketa 2020 Astean	Ald. %
Dolarra / Euroa	1,11	-0,27	-1,10
Yena / Euroa	122,16	0,39	0,39
Libera / Euroa	0,85	0,14	0,76

Lehengaiak	Maila	% Aldaketa astean	% Ald 2020
Petrolio (Brendt)	65,18	-0,17	-1,87
Urrea	1.557,24	-0,33	2,63

Kutxabank Gestión SGIIC SAUk prestatu du agiri hau, eta horretarako, fidagarriak diren informazio-iturriak erabili ditu. Hala ere, ezin du ziurtatu bertan jasotako informazioa eta iritziak erabat zehatzak, zuzenak eta osoak direnik, eta ez du bere gain hartzen horren gaineko inolako erantzukizunik. Agiri honetan agertzen diren informazio eta iritziak edonoiz aldatu daitezke, aurretik horren berri eman beharrik gabe. Kutxabank Gestión SGIIC SAUk ez du agiri honen eta bere edukien erabilerak sortu ditzakeen kalteen gaineko erantzukizunik hartzen. Finantza-merkatuetan eragiketak egiteak arrisku handiak sortu ditzake, eta posizioa etengabe zaindu behar da. Txosten hau ez da eskaintza bat ez eta finantza-aktiboak erosi edo saltzeko eskaera bat ere. Agiri hau zu informatzeko besterik ez da, eta hirugarrenek ezin dute berregin edo banatu. Era berean, ezin da, inolako aitzakiapean, osorik edo zati bat argitaratu.